Egoera politikoa

Espainiaren eta Frantziaren «errepresio eskaintzei» aurre egiteko eskatu du EHk

Hori dela eta, «subiranotasunaren bidean» eusteko eskatu die EAJri eta EAri

Eider Goenaga / **Donostia**

Frantzia eta Espainiak Euskal Herriari egiten dioten «errepresio» eskaintzari aurre egin beharra nabarmendu zuen atzo EHk, eta «subiranotasun bideari» eusteko deia egin zien EAJ eta EAri, Donostian eskainitako prentsaurrekoan. Ildo horretan, Jose Maria Aznarrek eta Michele Alliot-Mariek aste honetan egindako adierazpenek Espainia eta Frantziaren arteko irizpide batasuna erakusten dutela gaineratu zuen.

EDURNE KOCH

Arnaldo Otegi eta Joseba Permach, EHko bozeramaileak, atzo Donostian eskainitako prentsaurrekoan.

FRANTZIA eta Espainiatik azkenaldian iritsi diren «errepresio» eta inmobilismo eskaintzak izan zituzten hizpide, beraz, Joseba Permachek eta Arnaldo Otegik. Permachek gogora ekarri zituen Jose Maria Aznar Espainiako presidenteak eta, Moncloara egin bisitaldiaren ostean, Michele Alliot Marie Frantziako RPRko lehendakari eta Donibane-Lohizuneko auzapezak egindako hitzak.

«Beti argi egon bada ere, azkenaldian are argiago ari da geratzen Frantziak eta Espainiak Euskal Herriari zer eskaintzen dioten; azken finean, eskaintza bera baita», adierazi zuen Permachek. EHk salatu zuen Espainiako Gobernuak Konstituzioa eta Estatutua mugatzat jarri eta «errepresioa» baino ez diola eskaintzen Euskal Herriari. «Eta Frantziak, era berean, ipar euskal herritar gehienek eskatutako Departamendua eta euskararen ofizialtasuna ukatu, eta Espainiaren estrategia errepresiboan laguntza eskaintzen du», nabarmendu zuen Permachek.

Aznarrek herenegun egindako adierazpenen ildotik, Otegik «eskertu» egin zuen hain argi hitz egitea, agerian uzten duelako zein jarrera duen Euskal Herriarekin. «Espainiak eta Frantziak inoiz baino argiago utzi dute Euskal Herritik datozen aldarrikapen guztien aurka etengabe egongo direla», gaineratu zuen Permachek.

Beraz, EAJ eta EAri galdegin zien zergatik utzi dituzten *«izoztuta»* Udalbiltza, Lizarra eta abertzaleen arteko elkarlana, «azkenean Madril eta Paristik egiten zaigun eskaintza lehengo bera baldin bada». Ildo horretan, EHk iragarri zuen EAJ eta EAri «subiranotasun bidean» eusteko eskatzen jarraituko duela, «ezin delako besoak gurutzatuta geratu halako gerra adierazpenak ikusirik». Euskal gizarteak bide bera hartu behar duela esan zuen Permachek, «batez ere, Mayor Oreja, Aznar eta halakoak entzuteaz nazkatuta daudenek».

RPRko kideei Euskal Departamenduaren kontra ager daitezen dei egin die Max Brissonek

Erredakzioa / **Baiona**

MICHELE ALLIOT-MARIE Donibane-Lohizuneko auzapez-diputatuak RPRko buru gisa Madrilen egin zituen adierazpenei jarraiki, Max Brisson RPRko Iparraldeko bozeramaileak Euskal Departamenduaren kontra agertzeko dei egin du.

«Departamenduaren alde agertu ziren alderdikideei, gure etxean eragiten duen Euskal Herri espainolean dagoen egoera berezia kontuan har dezaten galdegiten diet, eta kasu handienarekin ibili behar dugula erraten diet», adierazi du Brissonek. «Euskal Departamenduaren sortzea Euskal Herritarrok alderdiak izenpetu duen Lizarrako akordioetan ageri da, eta gure etxeko abertzale bortitzenak aldarrikapenaren buru dira. Egoera honek jarrera argi eta fermuak galdegiten ditu», adierazi du, ordu arte alderdikideei gaiari buruz utzitako askatasuna mugaturik.

Manifestazioa, hilaren 24an, euskal demokraziari «bai» esateko

EH-K manifestazio nazionala antolatu du hilaren 24rako, Donostian. Manifestazioak *Euskal Herria burujabe; Bai euskal demokraziari* lelopean egingo du ibilbidea, eta, Joseba Permachek azaldu zuenez, Espainia eta Frantziak Euskal Herriari egindako «errepresio» eskaintzei aurre egiteko modua izango da. Beraz, «deialdi zabala» egin zieten Euskal Herriak subiranotasun bidean aurrera egin dezan nahi duten guztiei: «Euskal Herria libre, burujabe eta eszenatoki demokratiko batean ikusi nahi badugu ezin baikara geldirik egon».

Manifestazioa Bulebarretik irtengo da, arratsaldeko 18:00etan.

eman ta zabal zazu
Universidad del País Vasco — Euskal Herriko Unibertsitatea

ERREKTOREGOA
RECTORADO

AURREINSKRIPZIOA

Aurreinskripzioa egiteko epea **ekainaren 12tik uztailaren 5era arte** izango da ikasle guztientzat.

TOKIAK:

- Arabako Campuseko errektoreordetza
Izardui komandantea, 2. Gasteiz.01005
Tlf: 945013000.

- Gipuzkoako Campuseko errektoreordetza
Akademi Gestiorako bulegoa. Ignacio Maria Barriola eraikina. Elhuyar plaza, 1. Donostia.
20018 Tlf: 943018000.

- Ikasleen Atala. Sarbiderako bulegoa
I. ikasgelategia, beheko solairua. 48940 Leioa. Bizkaia. Tlf: 946015555.

ORDUTEGIA: **9:00etatik 13:00etara**

TITULAZIO BERRIAK
(titulazio horiek jartzeko tramiteak oraindik bukatu gabe daude)

1999/00 ikasturtean Euskal Autonomia Erkidegoko irakaskuntza ertainetako ikastetxeetan UBI/IEE/LOGSE ikasten ari diren ikasleek aldatu ahal izango dute 2000/01 ikasturtean Euskal Herriko Unibertsitatean ikasketak hasteko egin duten aurreinskripzioa, ondoren aipatzen diren titulazio ofizialak eskatzeko aukera ere izango dutelako:

- **LAN PUBLIKOETAN ING. TEKNIKOA,** Barakaldon.
- **SISTEMEN INFORMATIKAN ING. TEKNIKOA,** Donostian.
- **ITZULPENGINTZA ETA INTERPRETAZIOAN LIZENTZIATUA**(1), Gasteizen.

Aldaketa **ekainaren 26tik 30era** bitartean egin ahal izango da, gorago aipaturiko bulegotean eta orduetan.

Iragarki honen informazio osagarria INTERNETen bidez eskuratu ahal ida, helbide honetan: www.ehu.es/acceso.

AUTOINSKRIPZIOA

UPV/EHUn matrikulatuta dauden eta unibertsitateko beste ikasketa batzuk egin nahi dituzten ikasleek, Web orriaren bidez aurkez dezakete eskaera:
www.ehu.es/acceso.
Idazkaritza birtutala: AUTOINSKRIPZIOA.

(1)Titulazioa honetan 70 plazako muga dago, eta matrikula egin ahal izateko honakoak dira baldintzak: hautaketaprobak gaindituta izatea; A hizkuntzan (gaztelera edo euskara) goi mailako ezagutza izatea; B hizkuntzan (ingelesa, frantsesa edo alemana) maila aurreratua izatea (multzo bakoitzean ikasleak berak aukeratuko du hizkuntza). Horretarako, ondoren zehaztutako hiru ariketak egin beharko dituzte.

Probak horiek Filologia, Geografia eta Historia Fakultaten egingo dira ekainaren 28 eta 29an, probetara aurkeztu ahal izateko aldez aurretik izena eman beharko da ikastegi horretako idazkaritzan bertan edo, bestela, posta elektroniko bidez **vhrdecan@vc.ehu.es**. Izena emateko epea: ekainaren 19tik 23ra.

Ekainaren 28an
1.ariketa.- B hizkuntzan idatzitako testua (1.500-1.600 hitz) A hizkuntzan (euskara edo /eta gaztelera) laburtzea (450-500 hitzeko laburpena).
9:00etan: frantsesa (B) - euskara edo/eta gaztelara
11:00etan: ingelesa (B) - euskara edo/eta gaztelara
13:00etan: alemana (B) – euskara edo/eta gaztelara
Ikasleak B multzoan aukeratutako hizkuntzari dagokion orduan aurkeztuko dira. B multzoan hizkuntzan bat baino gehiago aukeratuz gero, aukeratutako hizkuntza guztietarako egin beharko da ariketa. A multzoan bi hizkuntzak aukeratuz gero, laburpena bi hizkuntzetan egin beharko da.

2.ariketa.- B hinzkuntzan entzundako hitzaldiaren (15 minutu) laburpen idatzia egitea B hizkuntzan.
16:00etatik 17:00etara: frantsesa
17:30etatik 18:00etara: ingelesa
19:etatik 20:00etara: alemana
Ikasleak B multzoan aukeratutako hizkuntzari dagokion orduan aurkeztuko dira. B multzoan hizkuntza bat baino gehiago aukeratuz gero, aukeratutako hizkuntza guztietarako egin beharko da ariketa.

Ekainaren 29an
3. ariketa.- Ahozko proba: 10 minutuko elkarrizketa B hizkuntzan. Ekaianren 28 an ikastegiko iragarki-taulan zerrenda jarriko da eta bertan zehaztuko da ikasle bakoitzak zein ordutan egin beharko duen ariketa.
Behin-behineko emaitzak uztailaren 4an argitaratuko dira;behin betikoak, uztailaren 5ean. Emaitza GAI edo EZ GAI izango da. Ariketa horiek gainditzeak ez dakar lizentziaturan onartu izatea.
Leioa, 2000ko ekainaren 10a.
AKADEMI ANTOLAKUNTZAKO ERREKTOREORDEA
Enrique Amezua San Martín.